

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko maiatzaren 31

Egunkaria

Gehigarri honetan

Iruñea • Gaur hasiko dira Arrosadiako jaiak, Udalaren traba eta debekuek eragozten ez badute • 3

Oscar Beorlegi • «Jendea zirikatu nahi dut, pentsarazteko» • 7

Nork bere arrimura




Eguneroko gertaerek makina bat irakurketa izaten dute biharamuneko egunkarietan. Beraz, ez da harritzekoa duela mila urte gertatu zirenak ulertzeko mila teoria izatea. 2004. urtean, Antso III.a Handiaren erregealdia hasi zeneko milurrena beteko da. Nafarroako euskal zein espainiar nazionalistak jada hasiak dira errege handi haren egitekoak goraiatzan. Nork bere arrimura, jakina.

Baztan ●

Plan estrategikoa abian

Udalak Baztango garapen sozial eta ekonomikoaren ardatzak zehaztu nahi ditu



Baztango egoera aldatzeko bidean hiru ildo nagusi ikusi dituzte: lehen sektorearen sendotzea, enpresa tiki eta ertainen sustapena eta turismoaren bulkatzea. ● EGUNKARIA

Baztango garapen sozial eta ekonomikoari buruzko plan estrategikoa egin nahi du Udalak. Planaren egiteaz LKS arduratuko da, eta Garalurren laguntzarekin herritarren parte-hartzea oinarri izanen duen plan estrategikoa egingen dute. Garalurreko teknikari Izaskun Abrilen erranetan, «plana interesgarria da, hausnarketa sakona egiten duela-kotz, eta batez ere, ona delakotz Baztango garapenari buruz Udalak bere proiektua edukitzea».

Gaurgero, lehendabiziko urratsak eman dituzte. Baztango diagnostikoaren ondorioak biltzen dituen txostena egin dute. Aberastasuna eta enplegua sortzen ahal duten sektore, esparru eta jardunaldien azterketa egiten da, eta bidenabar, herritarren bizi-kalitatea aztertu. Horretan oinarrituta, Baztango etorkizuneko garapenaren ahulune, mehatxu, indargune eta

Baztango garapen ereduaren zehaztea eta horren gauzatzeko abiarazi beharreko egitasmoak zein diren jakiteko, plan estrategikoa egin nahi du Udalak. Eginahal horretarako LKS aholkularitza enpresa hartu dute.

aukeren zerrenda erakusten da AMIA matrizearen bidez.

Diagnostikoa LKSko eta Garalurreko teknikariek egin dute. Horretarako zinegotziekin bildu dira, eta Udaleko batzordeetatik erdiesten den informazioaren bidez, hainbat sektoreri buruzko azterketa egine dute Halaberean, Baztanek duen antolamendu berezia ikusita, herrietako zinpeko alkateekin bildu dira. Eginkizun horretarako hainbat datu estatistiko ere aztertu dituzte.

Diagnostikoaren egiteko eta plan estrategikoaren prozesua gainbegiratzeko, Kontseilu Orokorra osatu dute. Orotara, hamahiru kidek osatzen dute: Udaleko talde polikoetako or-

dezkarriak, hezkuntza arloko ordezkariak, gizarte eragileak... Ekapernak egiteaz gain, prozesuan gutienezko adostasuna bermatzea izanen da Kontseiluaren zeregin nagusia.

Ildo estrategikoen definitzea

Egoeraren diagnostikoa egin da, hurrengo urratsa erronka estrategikoa zehaztea da. Izaskun Abrilen erranetan, «jendek fase hau utopiko bezala ikusten du, hemen etorkizuneko Baztan irudikatzen baita». Alta, aski fase garrantzitsua da, egoeraren aldatzea ahalbidetuko duen hausnarketa egiten baita.

Behin erronka estrategikoa zehaztuta, helburu horien er-

diesteko ildo estrategikoen definitzea letorke. Horren arabera, Baztango egoera aldatzeko bidean, hiru ildo nagusi ikusi dituzte: lehen sektorearen sendotzea, enpresa tiki eta ertainen sustapena, eta hemengo ezauzgarrietara moldatzen den turismoaren bulkatzea. Horrekin batean, bertze hiru ildo osagarri ikusi dituzte: natur ondare, giza baliabide eta azpiegituri buruzkoak. Alta, ildo bakoitzaren helburu eta bitartekoak zehazteko, gizarte eragileekin mahai teknikoak eratuko dituzte.

Plan estrategikoa urte bukarerako egin nahi dute, eta 2006 urte arteko iraupena izanen du.

→ Joseba Otondo

Basaburua / Ultzama

Ekitaldiz jositako asteburua

Udaberria hasi zenetik ia astebururo izan da ekitaldiren bat Basaburuan Udaberri Kulturalaren barnean, kultur taldeak antolaturik: mendi ibilaldiak, kontzertuak, erromeriak... Igande honetan Basaburuko jende guztia batuko duen eguna izanen da: Basaburuko Eguna. Denetarik izanen da: eskulangileak, gaztelu puzgarriak, musika, herri kirolak Saralegi anaien eskutik (12:30ean), herri bazkaria eta, bazkalostean, musika eta dantza txapelketa.

Igandea baino lehen, ordea, bada zer eginik larunbatean ere. Alde batetik, Gartzarongo elkartearen bertso afaria izanen da 21:30ean, Iñaki Murua eta Aitor Sarriegi bertsolariekin. Hori gutxi balitz bezala, egun horretan bertan eta Gartzaronen bertan gau-pasa antolatu du Irkaitz gazte taldeak. Ultzama-ko Eremu taldeak gaueko hamabietan kontzertua eskainiko du eta, ondoren, Joselu Anaia ariko dira. Zuberorearen aldeko kanpainaren barnean kokatu dute gaupasa hori. Beraz, etekin guztiak Zuberorendako izanen dira.


Arainozko erromeria

Igandean Basaburuko Eguna egingen duten modu berean, igandean ere Arainozko erromeria egingen dute ultzamarrek. Batzuk gosaltzera igoko dira Arainozko baselizara, eta beste batzuk bazkalorduan azalduko dira. Eguerdian meza entzun eta gero, janaria, musika eta giro ona ziurtaturik daude. Iluntzean Iraitzotz herrian elkartuko dira, dantzaldian, gaueko hamabiak arte.

→ Txari Eleta

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Elsa farmaziara sartu, bezero ugarien artean jarri eta txanda noiz iritsiko zain geratu zen. Halatan zegoela ikusi zuen, bera zegoen tokitik pixka bat aurrerago. Inaxio zeritzan, eta Ateneo Libertarioaren literatura lantegian ezagutu zuen; Elsak, hango arduraduna izaki, ikasle izan baitzuen ikastaro batean. Aspirina-kaxa bat eskatzean entzun zuen ahots lodi hura, eta burura etorri zitzaion harako egun hartan ikastaroko partaideei etxean landu zezaten bidalitako ariketa: norberak idatzi behar zuen berea ez zen sexu-kidegoaren inguruan; hala, emakumeek gizonetzkoek eta gizonetzkoek emakumeek testu bana sortu behar zuten hurrengo saiorako.

Elsak gogora ekarri zuen orduan Inaxio — aspirina-kaxa ja-da esku artean zuenak — orduko hartan idatzitakoa, alegia: «Niretzat, emakumea, langar eta harri zorrotz artean zabaltzen zai-gun kai bat bezalakoa da; dugun helburu bakarra, gure ontzien

Segurtasun neurriak

norako ezinbestekoa. Izan ere, maite ditudan emakumeak, olatuak bezalakoak dira: arroken kontra beti lehertzen dihardutenak, kostaldea etenik gabe orrazten dihardutenak. Ez dakigu nondik datozen, zergatik mugitzen diren, baina haietan bainatzen gara poliki, uda garaia iristean». Puntu honetan egileak aitortzen zuen ez zekiela gauza handirik «eremu busti horretaz», lehorrekoa zelako. Amaiera aldean, honela zioen testuak, hitzez hitz: «Ez, emaztekoa da, behetik abiatuz eta beti goraka joz, zapaldu beharreko tontor estu edo zabal halako bat. Lenito, Marimanya, Piméné... horiexek ez dira, uste bezala, mendi-izenak, emakumeenak baizik. Laburki esanez, itsaso azpiko sumendiak dira; eta erre egiten dute, eta ito egiten gaituzte. Eta horrek ez dit axola».

Elsari iruditu zitzaion lerro haiek emakumea idealizatu egiten zutela, ikuskera erromantiko aski desfasatu batetik eginak zirela, ez zirela egokitzen egungo emakumearen errealitatera; hanpatuegiak zirela oso, finean. Baina, halaz ere... Bere aldamenetik pasatzean geldiarazi eta agur egin zion. Luze gabe, farmaziaren alboko taberna batean zeuden biok, solasean. Keinu eta hitzak tartekatuz zituzten, eta lehenengo muxuak ere bai. Inaxioren ebkera joan ziren gero, eta logelara sartzean, bi tramankulu begiztatu zituen Elsak hormatik esekiak, ohearen alde banatan ezarriak: bata, tamaina ertaineko itzalgailu bat zen; bestea, birbil formako flotagailu bat, laranja kolore bizikoa, soka zuri batez inguratua. Horiex ikusirik, Elsa berehala prest agertu zen testu hartan irakurritakoa noraino zen egia baieztatzeko. Inaxio erreko edota itoko ote zuen, itzalgailua edota flotagailua erabiliiko ote zuten, inkognita bat da oraindik.

Arrosadia •

Jaiak kinka larrian

Arrosadiako jaiak

Ostirala 31

20:00 Txupinazoa, Manuel de Falla plazan. Ondoren, dantzariak, maiordomoak, konpartsa eta gaitariak.
21:00 Herri poteoa, Zintzarri txarangak lagunduta, Manuel de Fallatik abiatuta.
22:00 Zezensuzkoa Ilargi Enea parkean.
23:00 Etsaiak, Zirikatu eta Sok taldeen kontzertua Manuel de Fallan.
 Atsedendian, Aekelarrea.

Larunbata 1

09:00 Gaitarien dianak.
11:30 Erraldoi eta kilikiak Ilargi Enean.
12:00 Kalejira San Fermin Peñatik.
12:30 Pilota partidak Gelbenzu jolastokian.
13:00 Euskal Ezkontzaren abiatzea Ilargi Enetik.
13:30 Pintxo eta sagardo dastaketa Manuel de Fallan.
14:30 Herri bazkaria Manuel de Fallan.
16:30 Mus txapelketaren finala Aterpe tabernan.
18:00 Zirku Eskolaren ikuskizuna Mira antzokian.
19:30 San Fermin peñaren txaranga aterako da.
20:00 Gazteentzako dantzaldia Drindots taldearekin Manuel de Fallan.
21:00 Larraín dantza Manuel de Fallan.
21:15 Herri poteoa trikitixak lagunduta Manuel de Fallatik.
22:00 Zezensuzkoa Ilargi Enean.
00:30 Gaupasā Drindots taldearekin Manuel de Fallan.

Igandea 2

09:00 Gaitarien dianak.
11:00 Kalderete txapelketa Bodegas Leire taberna ondoko orubean.
11:00 Haur parkea Fuerte Principe parkean.
12:00 Eskulangileen erakusketa Taxoara kalean.
12:30 Herri kirolak Fuerte Principen.
14:30 Epaimahaiak kaldereteak dastatuko ditu.
17:00 Haur parkea Fuerte Principen.
17:30 Sari banaketa Lagun-Zaharrak elkartearen.
19:30 Kiki eta Moko pailazoak Ilargi Enean.
20:00 Labrit taldearen kontzertua Manuel de Fallan.
21:30 Zezensuzkoa Ilargi Enean.
22:00 Jaien bukaera.

Gaur hasiko dira Arrosadiako jaiak Udalaren traba eta debekuek eragozten ez badute

LERROK IDAZTEKO ORDUAN, asteazken arratsaldean, Arrosadiako Jai Batzordea tirabiraka ari zen Iruñeko Udalarekin jaiak «ahalik eta normalen» ospatzeko. Izan ere, Batzordeak salatu duenez, anitz izan dira Iruñeko Udalak jarri dituen trabak eta debekuek: «Ez du kontzertu bat egiteko baimena eman, hitzarmen bidez parte hartzen duten taldeen kopurua murriztu du, ziurrenik jada murriztua zuen diru laguntza kenduko du, dantzaldiak eta kontzertuak Ilargi Enea parkera eraman nahi ditu eta txosnak hegoalde ikastolaren ondoko orubera». Udalaren oztopoak gorabehera, Jai Batzordetik NAFARKARIARI asteazkenean erran zioten «jaiekin aitzina segitzeko asmo irmoa dago».

Manuel de Falla plazatik atera nahi dute jaiak

Jaien erdigunea Manuel de Falla plaza izan da beti, baina antza denez, Iruñeko Udalar hori ez zaio gehiegi gustatzen eta hortik kanpora eraman nahi du besta aurten. Ekitaldi asko Ilargi Enea parkera eraman nahi ditu Udalak. Ilargi Enea Arrosadian dagoen berdegune ia bakarra da. «UPNk nahi du berak kontrolatzen ez dituen gauzak desagertzea, eta auzoetako jaiak gauza horien artean daude», erran du Jai Batzordeko kide David Kastillok. «Gero eta diru



Arrosadiako jaien erdigunea Manuel de Falla izaten da beti. Aurten, auskalo. • LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Iruñeko Arrosadia auzoko bestak asteburu honetan ospatuko dituzte, gaurtik igandea arte. Hori ia gauza segurua da. Non ospatuko dituzten, ordea, ez dago segurtasun handiz jakiterik.

gutiago eman eta gero eta traba gehiago jartzen dituzte».

Euskal ezkontza eta San Fermin peña

Jaiak normaltasunez egiten badira, gaur jaurtik dute txupinazoa, 20:00etan, —ustez— Manuel de Falla plazan. Ondoren, Amaiur dantza taldearen, Arrosadiako maiordomoen eta konpartsaen erakustaldia izanen

da. Gauean gazteentzako kontzertu erakargarria izanen da: Etsaiak, Zirikatu eta Arrosadiako musika lehiaketa irabazi duen Sok taldea.

Larunbateko ekitaldirik nabarmenena AEKko Arrosadia euskaltegiak antolatu duen euskal ezkontza izanen da, Euskal Herriko aspaldiko ezkontzen egun osoko antzezpina alegia. Silbia Zabalza eta Gorka Kube-

los auzokideak 13:00etan «ez-konduko» dira Ilargi Enean. Ondoren, herri bazkaria egingen dute, euskal menuarekin: Tuterako kukuluak, Lodosako tomate eta piperrak, txuletoia eta Erronkariko gazta.

Larunbatean ere, San Fermin peñak bere eguna ospatuko du. Lehen jaietatik kanpo egiten zuten, baina giro handiagoa lortze aldera jaien egitarauaren barnean egingen dute aurten. Zikiri jatea egingen dute eta egun osoz txarangarekin ibiliko dira gora eta behera.

Igandean haurrentzako ekitaldi ugari izanen da, eta kalderete lehiaketa egingen dute.

→ Asier Azpilikueta



Laguntzaileak



Arrosadiako ASANBLA



EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

Euskara eta jaiak herriarenak dira!!

batasuna




Arrosadiako Txosnen Batzordea

EKAINAREN 1 ean

- * 13.30etan pintxoak eta sagardo dastaketa
- * 14.30etan HERRI BAZKARIA
- * 21.15etan KALEJIRA plazatik



Gurekin batera jaiak ospatu!

IMANOL ARROSADIARA!

Gelbenzu, 13 eta 15 - Tel.: 948 23 94 48 - 31005 IRUÑA
www.websanfermin.com • e-mail: penasanfermin@terra.es



Gastronomi elkarte

ZABALDU

KULTUR ELKARTEA

Etor zaitetz gurekin pote bat hartzera Jai Zoriontsuak!

Manuel de Falla kalea, 11 - Tel.: 948 24 54 47 - 23 85 77* - 31005 IRUÑA



ATERPE TABERNA

Urederra ibaia, 14 - 31005 IRUÑA
Tel.: 948 23 77 76



SORGINTZE

JATETXEA - TABERNA

EUSKAL SUKALDARITZA ETA MODERNOA
BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEKO MENUA
FRIJITUAK, SEPIA, KALAMARRAK, GANBAK BARATXURIEKIN,
ANTXOAK ETA PINTXO AUKERA ZABALA

Guelbenzu kalea, 35-37 zenb. - IRUÑA - Tel.: 948 23 50 98

Antsoaren handitasunrekin bueltaka

Antso III.a Handiaren milurrena ospatzen hasi dira batzuk eta besteak

NAFARROAK ERREINU BEZALA IZAN DITUEN errege guzien artean handiena izan zen Antso III.a Handiena, ez garaiena zela —hura Antso VII.a Azkarra izan zen—, baizik eta bere menpean lurralde eremu zabalena izan zuelako. 1004 eta 1035 urteen arteko bere erregealdian, Euskal Herria, Gaskonia, Aragoi, Sobrarbe eta Ribagorza, Bartzelonako konderrria, Errioxa, Gaztela eta Leongo lurrak izan ziren bere agintepean, modu batean edo bestean.

Politikan ez ezik, kulturen ere itzal handia izan zuen Antso III.ak; klunitarren erreforma sartu zuen monasterioetan —haren garaian lortu zuten San Juan de la Peñak eta Leireko monasterioek beren osparen goren—; eta Donejakue Bidearen Nafarroako zatia zabaldu zuen, baita erromesen segurtasuna handitu ere. Erdi Aroko erakunde politiko nagusiak ere Antso Handiaren garaian eta haren eraginez sendotu ziren, Gortea eta gremioak besteak beste.

Euskal Herriko ala Espainiako errege?

Bere garaiko erregerik indartsuena eta errespetatuena izan zen Antso Handia, eta Ibn Haiyan historialari arabiarrek *ibn Sanyu* izendatu zuen, *baskoien buruzagia* alegia. Horregatik, euskal abertzale askok erreferentziatzat dute Handiaren erregealdia, bere garaian euskal lurralde guziki euskal estatu berean sarturik zeudelako. «Askotan erratan dute Euskal Herria ez dela inoiz bat izan, asmatutako gauza bat dela, guziz birtuala», azaldu du Eugenio Arraizak, milurtekoa ospatzen ari den Euskokultur taldeko kideak. «Bada, duela mila urte, Europako herriak egitura-tzen ari zirenean, Iruñeko erreina guziz finkatuta zegoen, eta Euskal Herriko zazpi probintziak egitura horretan zeuden. Euskaldunok, beraz, badugu arbaso komun bat. Eta bakoitzak ospatuko du nahi duen gisan, anaia-arrebekin edo bakarka, baina arbasoak guzianak direla ezin uka».

Antso Handia, baina, Nafarroako espainiar nazionalisten erreferentzia ere bada, *espainietako errege* bezala hartua izan baita, bere heriotzaren ostean gerora Espainia osatuko zuten erreinuen egituraketa egin baitzuen. Honela bada, egunotan hitzaldi sorta antolatatu du Madrilgo Nafarroa Kultur Elkarteak Antso Handiaren inguruan. Hitzaldiak iragartzeko esku orri-an elkarteok goraipatu dute nola garai hartan Iruñea erreinu handi bateko erdigunea zen: «Baina gertaera hark ez zuen soilik eragina izan duela bostehun urte desagertu zen erreinu hartan. Izen hori izatea merezi duten espainiar guzientza-

Nafarroako historiak xarma berezia duela ezin uka. Hori dela eta, noiz edo noiz historiografiaren gaineko interesa pizten da gurean. Oraingoan, Antso III.a Handia erregeari egokitu zaio txanda. Izan ere, 2004. urtean mila urte beteko dira bere erregealdia hasi zuela. Aurreikuspen handiz, Euskal Herriko eta Espainiako nazionalismoen lubakietatik hasi dira jada milurtekoa ospatzen.

ko, gertaera historiko transzendentala izan zen hura».

Abertzaleen eraso

Euskal nazionalistak hasi ziren lehenbizi Antso Handiaren figura goraiatzeko. Iragan urteko maiatzean iragarri zuten, Hondarribian, Jaizkibelgo Talaia izeneko lekuan, Antso Handiaren omenezko oroigarria paratuko dute. 1998tik «gipuzkoarren eta nafarren arteko harremanak eta loturak sendotzeko» San Martzialen urtero elkartzten den talde baten ekimena izan zen.

Talde horri bururatu zitzaion euskaldunen arteko adiskidetasuna goraiatzeko bide hona zela Antso Handiaren erregealdiaren milurtekoa ospatzea. Euskokultur eta Foro Irun XXI elkarten inguruan egituratu zuten ideia. Hondarribiko Udalaren eta Udalbiltzako Zuzendaritza Batzordearen babesa jaso du. Milurtekoa ekitaldi sorta batekin ospatuko dute. Aipatu dugu oroigarria. Baina horretaz landara, kantata bat prestatzen ari dira. Bertsozale Elkartearekin batera, lehiaketa antolatatu zuten kantataren hitzak egiteko, eta, berriki iragarri dutenez, Pello Esnalek irabazi du lehiaketa. *Antso Handia*, errazu bertso sortarekin. Hitzak musikatzeko beste lehiaketa bat abiatu dute, oraingoan Euskal Herriko Konpositoreen Elkartearekin. Epaimahaia jada osatu dute, eta laster, lehiaketaren zehaztasunak emanen dituzte. Zortzi hilabeteren buruan edo, lehiaketako irabazlea Pello Esnalekin lanean hasiko da kantata osatzeko.

Oroigarria, kantata... Eta ikerlana. Duela guti, milurtekoaren ospakizuneko antolatuak *Antso III.a Handiaren garaia (1004-1035)* historia ikerketa saria aurkeztu zuten. Lanek Antso Handiaren garaia aztertu behar dute, ez errege bera. Izan ere, Euskokultur Fundazioko kide Eugenio Arraizak erran duenez, «ospakizun zioa ez da errege baten figuraren goraiatzea, baizik eta erresuma batena, garai batena».

Oroigarria, kantata, ikerlana... Eta antzezlan. Baina oraingoan, lehiaketarik gabe. Patxi Laborda folklorista ari da antzezla-



● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Antsoaren lurraldetasuna

ANTSO III.A HANDIAREN ERREGEALDIAREN HASIERAREN MILAGARRIEN urteurrena ospatuko dute hemendik bi urtera. Batzuk eta besteak. Izan ere, euskal nazionalismoaren ikuspegitik Antso Handia figura garrantzitsua izaten ahal da, baina baita espainiar nazionalismoaren ikuspegitik ere. Antso ez baitzuten bere menpean bakarrik Euskal Herriko zazpi probintziak izan, baita beste hainbat lurralde ere. Entziklopediei kasu egiten badiegu, Antso Kordobako kaliferriaren ahuleziak eta ezkontza bidezko harremanez baliatu zen bere asmoak aitzina ateratzeko.

Aitaren partetik Nafarroa eta Aragoiko konderrria jaso zituen. Gaztela eta Iruñeko erreinuaren arteko mugak ongi finkatzea izan zuen lehen helburua. Gaztelako konde Garcia Sanchez II.aren alaba Muniarekin ezkonduz lortu zuen hori (1016). Bien lurraldeen arteko harremanak sendotu zituen berebat.

Sobrarbe eta Ribagorzako konderrriak bereganatzea ere lortu zuen (1019), emaztea Ribagorzako kondesaren iloba txikia baitzuen.

Bestalde, Kataluniako konderrrian esku izatea erdietsi zuen Antso, Ermesinda eta Berenguer Ramiro I.a amasemeek beren artean zerabiltzaten konponezinetan Ramirori lagunduz.

Gaskoinako dukeria Nafarroaren menpe eduki zuen (1023), bere osaba Antso Gilermo dukeak zor baten ordainetan eman baitzion. Antso Lapurdiko bizkonderrria sortu zuen.

naren gidoia egiten. Labordak berak osatu eta zuzenduko du antzezlanaren aularatuko duen taldea. «Talde horretan, Hondarribiko, Irungo eta Hendaia jendea izan da, eta baita artista gonbidatuen bat ere», Arraizaren hitzetan.

Regionalisten kontraerasoa

Baina euskal nazionalistak ez dira milurtekoa ospatu nahi duten bakarrik. Arestian aipatu dugun Madrilgo Nafarroa elkartearen ekimena batu behar zaio duela pare bat aste aurkeztu zuten *Antso III.a Handia eta Iruñeko erreina bere testuinguru historikoan* izenburuko nazioarteko lehen historia ikerketa saria. Sancho el Mayor izeneko Nafarroako Adinekoen Elkarteak antolatatu du saria.

Elkarte hau iragan urrian sortu zen, adinekoen eskubideen eta aldarrikapenen defentsa egiteko. «Adinekoek bizitzaren esparru guzietan parte hartu behar baitugu, bitartekari gabe, alde batera utz ez gaitzaten», erran du Javier Igal bere lehendakariak. «Elkarteak helburu kulturala du, apolitikoa da, akonfesionala eta independentea». Argitu beharkekoa da Igal UPNko zinegotzia izan zela Iruñeko Udalean; elkartearen egoitza eta telefona alderdi erregionalistak dituen berak direla; eta UPNren webgunean Ju-



● ASIER AZPILIKUETA

Azkenik, bere araba Urraka Leongo Alfonso V.aren ezkonarazi zuen (1029), Garcia Gaztelako kondea hil zutenean; Gaztelako konderrrian sartu eta, lurralde horrez gainera, Cea eta Pisuerga ibaien arteko lurraldeak eskuratu nahi izan zituen, baina Leongo errege Bermudo III.ak gerra deklaratu zion. Hainbat gatazkaren ondoren, Leon, Astorga eta Zamora bereganatu zituen Antso, baina Leon hiriri ez zion eutsi denbora luzean.

Hil aurretik, semeen artean banatu zuen bere erresuma: Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Bureba eta Errioxa Garzesen esku utzi zituen, Gaztelako konderrria Fernandoren esku, Aragoi Ramiroren esku eta Sobrarbe eta Ribagorza konderrriak Gonzaloren esku.

IKERKETA LEHIAKETAK



SANCHO EL MAYOR

Hizkuntza: Gaztelania, euskara edo beste edozein hizkuntza, baina, betiere, gaztelaniako itzulpena eman behar da.
Saria: 6.000 euro.
Lanen gutieneko luzera: 50 orrialde.
Epea: 2002-X-15
Telefonoa: 948 22 72 11
Webgunea: www.sanchoelmayor.org

ventudes Navarras, Blanca de Navarra emakumeen elkarte eta Sancho el Mayor adinekoen elkarte maila berean agertzen direla.

Igalek adierazi duenez, Antso Handia errege «garrantzitsua» izan zen, «erregeen errege». «Hainbat autoreri irakurri diot gertaera berezi batzuegatik izan ez balitz Antso Handia izan zitekeela egun Espainia bezala ezagutzen dugunari jatorria eman ziona; errege katolikoa baino 500 urte lehenago». Adinekoen elkarteak «garai hartako gertaeretan sakondu eta errege honen figura goraiatu nahi du» lehiaketaren bitartez.

Eugenio Arraizari «ongi» iruditzen zaio UPNko elkarteak milurtekoa ospatzea. «Baldin eta legez jokatzaren badute, historiari zientifikoki erakusten duena kontuan hartuz», erran du. «Dena dela, haiek egiten dutena oso partziala izan da beti, ospakizuna egitea Euskal Herri osoari baitagokio, eta ez bakarrik UPNk kudeatzen duen hondarreko Nafarroari».

Milurteko honekin gertatzen ari dena ikusita, zer ez ote da gertatuko 2012an Nafarroaren konkista ospatzen-gogoratzen hasiz gero.

→ ASIER AZPILIKUETA

Apaltasun osoz

Aipuak. Shakespearek esan zuen Nafarroak mundua harrituko duela. Hemingwayk Iruñerriko galsoroek uztailen Van Gohgen koadroa diruditela. Pio Barojak — eta ez Miguel de Unamunok, epatante batek egunkari honetan bertan joan den igandean idatzi bezala — pentsamendu eta nafar hitzak uztarteziak direla. Eta Pako Aristik Euskalerra Irratiaren Larreko afariak herri txiki batean egindako ezkontza ematen duela.

Predikuak. Urrestillako idazlea alboan egokitu zitzaidan joan den urteko Larreko afarian. Giroak Aristi txunditu zuen. Ni Aristi afarira eraman etxeko-orujoak txunditu ninduen: dinamita botila bi — zalantzatan nabil. Dinamarca Danimarka bada, dinamita danimita? — Ni eta beste hainbat. Uhin hedakorren triskantzak begi bistakoak izan ziren gure mahaiko giza-paisaian. Aristi ez zen aurtengo, joan den ostiraleko Larreko afarira joan. Ni bai — duela bi urte, honako zutabe hau egiten dudanetik, urtero gonbidatzen naute. Nafarroako *intelligentsiako* kide bilakatu naiz, nonbait —. Eta berataz oroitu nintzen, batetik bere orujoagatik, bestetik aurten ezkontza giroa iaz baino askoz nabariagoa izan

zelako: apaizaren predikurik ere ez zen falta izan.

Aitorpenak. Aurten autoestopeko ipuinen egilearen orde, astebururo Euskal Herria kamionetan alderik alde zeharkatzen duen Modesto gizon-orkestra egokitu zitzaidan afarian alboan eserita. Mikel Bujanda jario oparoko irrati gizonak eta On Joxe Mari Satrustegi euskaltzain, etnografo — inork bere *Comportamiento sexual de los vascos* artikulua badu, kopia helaraz diezadala, otoi. Duela gutxi prentsaren bi-


tartez, besteak beste, hori idatzia duela jakin nuenetik, irakurtzeko irrikitan nago —, ufologoak hitzaldiak burutu zituztelarik, Modesto kezkatu mintzatu zitzaidan: «Honen ondotik ez dago giroa berotuko duen kristaurik».

Profeziak. Musika gizonaren esaldia abiapuntutzat hartuz, inguruan ziren Txema Ramirez de la Piscina EHuko irakaslea eta Mikel Aramendi kazetari zorrotza bere eragin propioz gauzatzen den profeziaren inguruan eztabaida sutsuan murgildu ziren — gogo-


rra behar du intelektualazateak —. Modestoren profezia, baina, ez zen bete, eta guztiok espero ez bezala, errepertorio izaera askotarikodunaz giroa hurrenez hurren epel, bero, kiskalgarri bilakatzea lortu zuen. Aleluia!

Irakokizunak. Dantzaldiaren berotasunari esker, barran lasaiago izan ginen barrako joera dugunok. Besteak beste, hantxe elkartu ginen Josetxo Azkona kazetari-poeta sekula ikusi dudakamisetarik itsusienarekin — Alonso, Alonso, Alonso eta bere denda familiarretan garairik

ilunenetan erositakoa seguruko asko: hori bai poema — eta Oskar Brako Euskalerra Irratiko komertziala Monte Carlon ateratzearekin tematuta — atera zara, ea egia den eta elkarten garen hurrengoan, besterik ezean heldu den urteko Larreko afarian, kubata bat ordaintzen didazun —. Hainbat gairi buruz aritu ginen eztabaidan, eta bakarraren inguruan azaldu ginen ados: Modesto sekulakoa da. Are gehiago, dagokionari irakokizuna helarazi nahi diot, apaltasun osoz, Modestorentzat izan dadila heldu den urteko Larreko saria.



Ernest Hemingway idazle nafarroazalea.



Aurrekoa Jose Maria Satrustegiren omenez, Larreko afarian.



panpilonia zirkus

Sarasateko olibak

Uztailaren 15erako billete guztiak agortuak egonen dira. Hori aski ongi dakite antolatzaileek. Arrakasta hasmentatik beretik izan du eta orain iduri du tonbolarik gabe ez dagoela sanferminik eta tonbola ezarri dela Pompeiok Iruñea lehen-dabiziko aldiz ikusi zuenetik, behintzat. Egia erran, Caritasek XX. mendean egindako ekarpena izan da.

«Ez ahaztu urtea luzea dela, eguraldia gogorra eta beharrak handiak. Eta ez ahaztu karitateko idazkaritza honen laguntzari esker hiriko 130 familia bizi direla. Erosi, bada, erosi billeteak tonbolan». Gisa horretan iragarri zuten tonbola 1948an, hiriko gizon-emakumeen bihotza eta kolkoa ukitu nahian, Erbiti eta Maneroren liburu zoragarrian gogora ekartzen duten beza-

la. Tonbolaren laugarren urtea izan zen hura, lehen aldikoz 1945ean paratu baitzen, gaur egungo leku berean, Sarasate pasealekuan alegia, zugar hostotsuen itzalpe goxoan.

Urtetik urtera, gero eta lehentxeago iristen da, edo halaxe iruditzen zaio hiriarri: «Ene, urtebetea ziztuan joan duk». Tonbola aldi berean baita hala denboraren joanaren adierazle nola festa nagusien igarle, eta alimaleko jendeketa biltzen du bere baitan. Horien artean, Bizenta Grendiain Iriarte. «Sariak onak dira. Hobe erran, onak omen dira, beti lagun hurkoari suertatzen baitzaizkio. Hasi zirenean ere, baziren panpina ederrak, eta motozikletak, eta pisu ederra, non eta Karlos Terzeron, garestia e? Baina, egia erran, guk egunero ero-

• SANFERMINAK



Caritasek tonbola, argazki zahar batean.

si eta, badakizu, oliba pote ttar bat, orain bezala. Saririk preziatuena, behin tokatu zitzaziguna: zera, Aita Santuaren irudi bat, Joan 23.a-edo, harena, bai, sukaldean paratzeko».

Baxerak, lorontziak, baloiak, panpinak, xaboiak, koloniak, agendak (tintarik gabeko bolaluma eta guzti), zainzuriak, oliba poteak, ardoa, erlojuak, Artiach gaile-

Enrike Diez de Ultzurrun

tak, argazki-markoak, hondartzako gaiak, flotagailuak, felpudoak eta, horiez gain, han goian, txirridulak teiltatuko ertzetik zintzilik, eskura ezin, eta, lurrean, baina lekutan, auto distiratsuak. Eta kartel handi bat ere bai: «Adinez txikiak direnei ez zaie alkoholik banatuko». Billete salmentan, betiko emakume adinekoak aritzen dira. Mihi gaiztoek diote badakitela, gutxi gorabehera, zein den bo-

leto sariduna eta zein ez. Bitartean, lagun hurkoa opariz zama-tua, eta saririk kolkoratu ez duen gure mutikoa, aldiz, negar malkotan. San Nikolasko zokoaren sarreran zegoen karrikoan txotxo eta txufa batzuk erostea izaten zen haren kasketa kontsolatzeko modua. Gaur egun, ordea, ez dago karrikorik, ezta «zugarrorik» ere.

Oscar Beorlegi

IDAZLE ETA MUSIKA KRITIKARIA

«Jendea zirikatu nahi dut, pentsarazteko»

B EORLEGIK IDATZI, ARGITARATU eta banatu du bere liburua. Lehen 500 aleak agortu eta beste 500 jarri ditu salgai. Komunikabideak, futbola, musika eta bestelako gaiak ditu hizpide, beti ironiaren eta umorearen ikuspuntutik, eta jendearen erantzuna eragiteko asmoarekin.

■ **Zein da zure eskuliburuaren helburua? Jendearen kontzientziari astindua ematea?**


Bai. Nik erraten ohi dut Pilotu Suizidaren lana dela makurkeriak desegitea, edo, bestela, egoera gehiago nahastea; hau da, inor sartzan ez den uretan murgiltzea eta jendearen gogoastintzea. Gaurko gizartean norabide bera jarraitzen du mundu guztiak, gizaki telegidatuak balira bezala. Nik bestelako norabidea segitzen dut, eta horregatik, jendearen erantzuna eragin nahi izan dut.

«Klasikoei erreparatu behar diegula erraten zidaten niri unibertsitatean, baina Ortega y Gasset edo Cervantes bezain klasiko dira niretzat, adibidez, Eskorbutoren hitzak»

■ **Hori egiteko Pilotu Suizida izeneko pertsonaia sortu zenuen duela hainbat urte. Nor da Pilotu Suizida?**

Idazten hasi nintzenean, musikaren esparruan hasi nintzen lanean. Gero konturatu nintzen beste hainbat gauzak ere hitz egin nahi nuela, eta, gaiak ez nahasteko, onena goitizena erabiltzea izanen litzatekeela pentsatu nuen. 1995. urte inguruan sortu zen, ondorioz, Pilotu Suizida. Nire asmoa zen punk literatura egitea, eta horregatik sortu zen Pilotu Suizida, izen horrek biltzen zuelako nire hitzen bidez adierazi nahi nuena: indarra, makarra eta oldarkorra zen mezua.

■ **Beraz, mezu hori zabaltzea da Pilotu Suizida-**



‘El piloto suicida: manual de supervivencia para andar por la vida’ bere aurreneko liburuan jendearen kontzientzia astintzea du helburu Oscar Beorlegi idazle iruindarrak. Musika kritikari bezala egindako lanarekin ez nahasteko, *Pilotu Suizida* izeneko pertsonaia asmatu zuen duela hainbat urte bestelako gaiez mintzatzeko. Haren mezu «punk eta oldarkorra» da liburuan bildutakoa.

■ **ren helburua; jendea zirikatzea, nolabait?**

Nolabait, hori da helburua, baina zirikatzea pentsarazteko. Pentsamendu bakarraren garaian bizi gara, eta errealitatea bera da probokazioa, nire ustez.

■ **Errazagoa da horretarako goitizena erabiltzea?**

Hala da, baina goitizena bali du, batez ere, mezuarekin lotzeko. Nire asmoa da borroka garaiko literatura egitea, nolabait, literatura punk eta oldar-

korra, eta horretarako, errazagoa eta eraginkorragoa da ideia horrekin bat egiten duen izena erabiltzea. Aldi berean, jendearen arreta lortzeko modua da.

■ **Zuk idatzi, argitaratu eta banatu duzu liburua; prozesu guztia kontrolatu nahi zenuelako edo beste inor ez delako auzartzen Pilotu Suizidaren hitzak argitaratzen?**

Ez dut uste horrelako liburu bati aurre egiteko gai den argi-

taletxerik dagoenik. Jo dut hainbat ate, baina lehen liburua argitaratzeko konturatu naiz bi aukera daudela: zuk egitea edo literatur lehiaketa bat irabaztea.

■ **Edukiari dagokionez, ez da ohiko liburua.**

Ez, ez. Nolabait liburu iraultzailea dela erran daiteke. Nik erraten dut politiko izateko liburu *makarregia* dela, eta liburu *makarra* izateko politikoezia.

■ **Musika kritikaria zarela nabaritzen da liburuan.**

soslai

Iruñean sortu zen Oscar Beorlegi, duela 35 urte. Filologiaren bidetik hasi zen Nafarroako Unibertsitatean (NU), baina karrera amaitu gabe utzi zuen, laugarren maila UNEDen gainditu ondoren. NUn emandako denboraz ez du oroitzapen onik, eta liburuan bildutakoak garai hartan bizi izandakoarekin zerikusi handia duela dio.

Idazten hasi aurretik, Eguzki Irratian aritu zen Oscar Beorlegi, baina laster konturatu zen nahiago zuela bere mezua idatziz zabaltzea. Musika buruz hasi zen idazten. Hainbat komunikabidetan agertu dira bere kritikak, *Egin-en*, adibidez. Egunkari horretan argitaratutako hainbat artikulua ageri dira iruindarraren lehen liburuan. *El Tubo-n* ere idatzi du, bai eta Interneteko *Borrasca-n* ere.

Musikaz haratago doa ‘El piloto suicida: un manual de supervivencia para andar por la vida’ liburua. Laster iruindarraren bigarren liburuan izanen dute jarraipena Pilotu Suizidaren abenturek. Azaro aldera argitaratuko du, ziurrenik.

Bai, argi dago musikaren eragina. Hala ere, ez dut gai horretaz gauza asko sartu nahi izan, baina argi dago erreferentzia ugari dagoela. Klasikoei erreparatu behar diegula erraten zidaten niri unibertsitatean, baina Ortega y Gasset edo Cervantes bezain klasiko dira niretzat, adibidez, Eskorbutoren hitzak.

■ **Musikaz gain, komunikabideen boterea edo futbola ere hizpide dituzu liburuan.**

Bai. Komunikabideak albiste dena huskeria bihurtzeko eta, alderantziz, albiste izateko mamia duena oharkabean pasarazteko gai dira gaur egun. Komunikabideetan gertatzen ari dena eskandalagarria da: boterea guzti batzuen esku dago, eta nahi dutena egiten dute. Guztiek, finean, nagusi beraren alde egiten dute lan.

■ **Gauzak errateko moduari dagokionez, hitz jokoak dira nagusi.**

Bai, oso gustuko ditut, eta literatura ironikoarentzat oso tresna baliagarria dira, gainera. Eta argi dago liburu hau horrelakoa dela. Testuaren gatza dira hitz jokoak, eta hainbat gairi buruz hitz egin ahal izateko modu bakarra.

■ **Jarraipenik izanen dute Pilotu Suizidaren artikuluek beste liburu batean?**

Izanen da beste liburu bat, bai, baina bestelako itxura izanen du. Ipuin modura aurkeztuko ditu bere mezuak Pilotu Suizidak. Agian, umore gehiago izanen du bigarren horrek. Iku-siko dugu.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Urtebeteko epea

Metropoli Foraleraino ere udaren aztarnak heltzen hasiak dira, argiak bezain tradizionalak: Sarasate pasealekuko herena hartu ohi duen tonbola martxan dago; Mecako ordezkariak egina dute urteroko prentsaurreko berezia, kafea eta kopa dituen bakarra; eta, azkenik, Iruñeko Udalak aurtengo sanferminetarako irudia ezagutarazi digu, guztiok horren inguruko polemikan murgilduz urteroko ohitura errepika dezagun. Hiru seinale argi, urterokoak, inoiz hutsik egiten ez dutenak, hirurak festari lotuak, hirurak gu ere lotzen gaituztenak. Festari lotzeaz ari garen, gaur zortzi Euskalerra Irratiak eginikoan horren beharraz jabetu nintzen: euskaldunok herrialde honetan bizi garen *apartheid*-ak eragin nabarmena izan du gure artean. Modestoren erranetara makurtu eta zutitzen zirenetako batzuek ez zuten duela urte batzuk horrelakorik eginen. Orain, aldiz, *Ixil ixilik dago* aditzen hastea aski da emozioz gogoratzen hasteko. Seinale argia bezain larria.

Ongi hitz egin zuen Satrustegik, batez ere laburra izan zelako. Haren errana zakar laburbil dezagun: UPNkoek ohiko kabroieriak eginagatik, guk lanean segiko dugu. Arruazuarrari urterik zailenetan euskararen alde eginiko lanagatik eman zitzaion saria. Beldur naiz oraingo martxa aldatu ezean afaltzen ari ziren gehienek ez ote duten apezaren meritua handituko, aurkako giro politikoari dagokionez bederen.

Modestoren soinuaren oihartzuna atzean utzirik, autoaren bila abiatu nintzen, gogoan sentimendu hirukoitza nuela (nago patxaranak ere bazuela eraginik, bai sentimenduan eta baita hirukoitzasunean ere). Alai, bategatik, noizean behin «Gora Euskadi txistulari» lema gogoratzea lakat zaigulako. Triste, bertzetik, triste delako, zinez, «Gora Euskadi txistulari» gogoratu behar izatea. Eta itxaropentsu, Paz de Ziganada Ikastolan bilduriko jendeak bertze Nafarroa bat badela argi erakusten duelako. Nafarroa horrek festak behar ditu, baina baita orain arte izan ez duen behar bezalako eskaintza politikoa ere. Urtebeteko epea dago mahai gainean jartzeko. Ezkorrak izan gitezke, hotz begiraturik euskararen aurkako etsai amorratuak Gobernu eta udal nagusietatik kentzea zaila izanen delako. Bai orain ere izan gaitzke, oraingo egoera hobetzeko oso guti behar dugulako. Politiko euskaltzaleena da azken hitza.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Atarrabia:** Suait taldea gaur The Indian tabernan, 20:30ean.
- ▶ **Zangoza:** Gaur, Segabathor taldea Espejo tabernan, 23:00etan, eta Anorexia taldea Dos Caballos tabernan, 00:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Jazzy Feeling taldea gaur O'Connor's tabernan, 23:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Amaral bikotea bihar, 21:30ean, pabiloi unibertsitari-arian.
- ▶ **Iruñea:** Zacatecas mariatxia bihar Arrotxapeko Bi-Garoa tabernan, 00:30ean.
- ▶ **Uharte:** Bol taldea bihar Zona Limite aretoan, gaueko ordu batean.
- ▶ **Burlata:** Dikers taldea asteartean Black Rose tabernan, 20:30ean.
- ▶ **Iruñea:** Hyssopus taldea asteazkenean, 21:00etan, Txantreako Akelarre tabernan.
- ▶ **Iruñea:** Los Rösslis taldea ostegunean, 21:30ean, Terminal tabernan.
- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Mikel Telleria abeslaria igandean, 19:00etan, plazan.

ANTZERKIA

- ▶ **Burlata:** Bele Bizi taldeak *Ke takoiak* antzezlanaz taularatuko du asteazkenean, 20:00etan, Axular elkartearen.
- ▶ **Burlata:** Txan magoak magia erakustaldia egingen du ostegunean, 17:00etan, Axular elkartearen. Bukatutakoan txokolate jatea izanen da.

HITZALDIK

- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Asisko Urmeneta euskal komikigintzaz eta kaleko hizkeraz solastatuko da gaur, 21:30ean, kultur etxean.
- ▶ **Iruñea:** Joseba Asiron Iruñerriko ondasunen inguruan mintzatuko da asteartean,

18:00etan, Campion euskaltegian.

- ▶ **Iruñea:** Kike Amonarriz, Antton Olariaga eta Asisko Urmeneta euskal umoreaz ariko dira asteazkenean, 20:00etan, Erraldioen Txokotan.
- ▶ **Burlata:** Barricada, Koma, Berri Txarrak eta Marea musika taldeetako hainbat kidek gaur egungo musikaz hitz egingen dute ostegunean, 20:00etan, Axular elkartearen.
- ▶ **Ezkaroze:** EHEko kide batek *Globalizazioa eta euskara* izenburuko hitzaldia eskainiko du ostegunean, 19:30ean, Ibar Etxean.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Uharte:** Natxo Barberena artistaren margolanak kultur etxean bisitatzen ahal dira ekainaren 8a arte, astelehenetik ostiralera 16:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara.
- ▶ **Mutiloagoiti:** Astelehenean, *Matematikekin jolasean* erakusketa didaktikoa zabalduko dute kultur etxean. Erakusketa ekainaren 17a arte bisitatzen ahal da, astelehenetik ostiralera 17:00etatik 21:00etara, larunbatetan 19:00etatik 21:00etara, eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.
- ▶ **Iruñea:** Blanca Correderas argentinarraren *Retrospectiva de una mujer inmigrante* erakusketa zabalduko dute ekainaren 28a arte.

BESTAK


- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Ofizialtasunaren aldeko euskal jaia egingen dute bihar: kalejira gaitariekin (11:00); Urgain abesbatza (12:30); herri kirolak (13:30); bertso bazkaria, Maialen Lujanbio eta Jesus Mari Irazu-

rekin (15:00); eta Trikizio taldearen kontzertua (00:00), besteak beste.

- ▶ **Arbizu:** Igandean Euskal Selektzioaren Eguna ospatuko dute: Berriain mendirako igoera

(08:00), ikurrinaren igoera (11:00), herri kirolak (11:30), bertsolariak (13:00), sokatira (16:30) eta Tximeleta taldearen kontzertua (19:00), besteak beste.

Asteko erakusketa



EGUNKARIA

Oscar Paternain

Non: Uharteko kultur etxean.

Noiz arte: Ekainaren 8a arte.

Ordutegia: Astelehenean ostiralera 16:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara.